



Snarkaren ehizan

Lewis Carroll

Irudiak: Henry Holiday

Itzulpena eta edizioa: Manu López Gaseni

Mila gau saila, 17

2024. urtea - 80 or. - 17x24 cm

978-84-9172-381-3 - 15,00 €

Hamar kidez osatutako eskifaia ezin bitxiago bat itsasoan amaierako uharte batean bizi omen den Snark izaki fantastikoa ehizatzen joan da. Bidean aurkezten diren egoerak zentzugabeak dira, eta ehiza eta Snarka bera, kimerikoak.

Kontakizuna bertsoan emana dago, balada baten antzera, eta Carrollen aurreko beste obretan ohikoak diren gaiak berritzen dira Aliziaren zikloa ixten duen obra honetan ere: hizkuntzaren arbitrariotasuna, hitz-jolasen aurreko umore-senaren falta, matematikarekiko zaletasuna, epaiketen parodiak, pertsonaiaren baten atzera begirako kontakizuna, ametsaren baliabidea.

Carrollen idazlanak adin guztietako irakurleentzat gozagarri diren arren, Carrolllek umeentzat idatzi zuen *Snarkaren ehizan*: «Ziur nago ume askok atseginez eta bihotzez irakurriko dutela, eta nik idatzi nueneko adore berberaz», idatzi zuen. Carrollen garaiko umeen irakurle- heldutasun hura, gaur egun, haurtzaroaren amaieraren eta nerabezaroaren hasieraren arteko tartean kokatuko genuke.



Lewis Carroll (*Daresbury, 1832-Guildford, 1898*)

Charles L. Dodgson diakono ingelesaren ezizena. Matematika irakaslea zen lanbidez, baina fantasia berriaren sortzailea izateagatik egin zen ospetsu mundu osoan: Aliziaren zikloko liburu bidez, logika, *nonsense* eta parodia ezin hobeki baliatu zituen haur literatura guztiz berritzeko. *Alizia herrialde miresgarrian* (1865) da haren obrarik ezagunena.



Henry Holiday (*Londres, 1839-Londres, 1927*)

Margolari, beirate-diseinatzaile, ilustratzaile eta eskultorea izan zen. Carrollen mandatuz, *The Hunting of the Snark* (1876) obrarako irudiak egin zituen, xilografia delako teknikaz baliatuz. Harreman harez geroztik, bizi arteko adiskide izan zuen Carroll. Garaiko zenbait margolari pre-rafaelita ezagutu zituen, eta haien eraginpean sortu zituen bere lan asko.



Manu López Gaseni (*Balkobilko, 1961*)

Haur eta gazte literaturaren inguruko ikertzaile, idazle eta itzultzailea, Lewis Carrollen obra ezagunen euskarazko edizioak prestatu ditu: *Alizia herrialde miresgarrian* (Pamiela, 2015), *Ispiluan barrena* (Pamiela, 1990), *Alizia haurrentzat* (Pamiela, 2004) eta eskuartean duzun *Snarkaren ehizan* (Pamiela, 2024) hau.

